

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PROIEKTU ESTRATEGIKOEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2007-2008.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun, eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Proiektu Estrategikoen fiskalizazio txostena mamitu du, 2007 eta 2008ko ekitaldietakoa. Txostena aho batez onetsi dute.

Hona hemen lanak aztergai izan dituen atalak: 2007 eta 2008ko ekitaldietan emandako laguntzen fiskalizazioa egitea; egindako ordainketen fiskalizazioa, enpresa onuradunek gauzatutako inbertsioei dagozkienak; eta aipatutako ekitaldietan amaitu diren proiektuetan aurreikusi diren helburuak bete direla egiaztatzea. Berebat, laguntzen araudia indarreko arautegiari egokitu izana ere aztertu dugu eta bertan zehazten diren baldintzak bete direla.

Programari 2000ko urtean ekin zitzaion eta gerora, 2006-2009 aldirako Enpresen Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntzarako Planean barne hartu da; Programa honen helburua inbertsioak egiteko laguntza ematea eta proiektu estrategikoei lotutako enplegua sortzea da; horretarako, proiektuak 4 urteren buruan egin beharko dira eta 50 milioi eurotik gorako inbertsioa eskatuko dute, edota 18 milioi eurokoa 70 enplegu berritik gora sortzen badira; halaber, txostenean xehetasunez jaso diren beste hainbat betekizun bete beharko dituzte.

Horiek aztertu ondoren, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak honako ondorio hauek eskuratu ditu:

- Laguntzak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2007ko irailaren 19ko Aginduak arautzen ditu; ordea, ez ditu laguntzen kalkulua egiteko irizpideak neurtzen eta ordainketa zatikatuak egiteko bide ematen du inbertsioen garapenaren arabera inongo berme motarik eskatu gabe; hauek biek txostenean jasotako indarreko arautegia urratzen dute.

- Jada laguntzak emateko espedientei dagokienez, bi ekitaldietan 55 milioi euro ingurukoak izan direnak, akatsak azaleratu dira 2007ko irailaren 19ko Agindua betetzerakoan, hala nola, gehiegizko diru-laguntza kasu batean, 1,5 hilabeteko atzeraldia 2008koari dagozkien laguntzak ematerakoan eta bi ekitaldietako batean ere ez argitaratu izana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradun eta zenbatekoen zerrendarik.
  - 2007an eta 2008an 32 milioi euro inguruko ordainketak egin dira eta ikusi dugu, arau orokor modura, onartu egiten dela idazpuruaren arabera metatutako inbertsioa onetsitakoa baino altuagoa izatea, beti ere, diruz lagungarria den inbertsio guztia gainditzen ez bada; alderdi hori ez dago dagokion Arau arautzailean aurreikusia eta ez dira ordainketa zatikatuak egiterakoan indarreko legerian aurreikusitako bermeak eskatzen.
  - 10 milioi euro inguruko diru-laguntza jaso duten bi ekitaldietan amaitu diren hiru proiektuei dagokienez, zera azpimarratu behar dugu:
    - Ez da inbertsioen iraupen aldiari buruzko kontrol eta jarraipenik egin; ez eta, Agindu arautzailean zehaztutako epeetan sortutako enpleguari buruzkorik.
    - Ez dago enpresen auditatutako urteko kontuen txostenik eta ez da proiektua amaitutzat emango duen eta hasiera batean aurreikusitako helburuak lortzeko maila balio-neurtuko duen agiria mamitu.
- Amaitzeko esan, 17 mila euroekin diruz lagundutako hiru proiektuk ez dituztela amaitzeko epeak bete eta hori ez-betetze kausa da, Agindu arautzailearen arabera. Horietako batean ebazteko dagoen ez-betetze espedientea abiarazi da eta beste kasu batean ez da inongo ekintzarik bideratu.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia  
Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas